



KEMIRA IBERICA SA instalazioa (helbidea: San Miguel Villatuerta industrialdea z.g., 31,200 Lizarra) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedapenei lotuta dago (horren bidez, substantzia arriskutsuekin zerikusia duten istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dira) BEHE MAILAN, eta 7. artikuluan aurreikusitako jakinarazpena egin dio Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuari, artikuluko horren 1. apartatuan ezarritako edukiarekin.

#### Establezimenduaren jardura

Papera ekoizteko industriarako produktu kimiko osagarriak

#### Azken bisitaren eguna

2024ko martxoaren 21a

#### Balizko istripu larriak eta sor ditzaketen eraginak

Kemira Iberica SA enpresaren produkzio-instalazioetan substantzia toxikoak, sukoiak eta ingurumenerako kaltegarriak daude. Establezimenduaren kanpoaldean eragina izanzen lukeen istripu larri baten kasurik kaltegarriena da ke toxikoen lainoa sortzea, epiklorhidrinaren errektorean kontrolik gabeko erreakzioa izateagatik. Pertsonen eragin dakizkiekeen kalteak toxikotasun akutuen ondoriozkoak dira, arnastuz gero eta esposizio-bideetan erredura larriak izanez gero. Establezimenduaren kanpoaldean badaude lurzoru/ura kutsatzeko beste kasu ez hain larri batzuk

#### Hartutako kontrol neurriak

Instalazioan honako neurri hauek hartu dira

- Nahastura leherkorrak analizatzeko gailu eramangarriak
- Andeletako hozte-eraztunak, horietako bat bero-isolatua
- Gas-ihesen detektagailuak, substantzia toxikoak biltegitratzen diren eremuetan
- 200 m3-ko euste-urmaila, isurketak saihesteko
- Euste-kubetak lehengaien andeletan, produktu bukatuetan eta ekoizpen-eremuetan
- Larrialdiko geldiarazte-sakagailuak zalamagnetarako eremuetan
- Suteen kontra babesteko instalazioak

#### Instalazioetan dauden Substantzia Arriskutsuak

|                                 |      |                                                                               |
|---------------------------------|------|-------------------------------------------------------------------------------|
| DIMETILAMINA ANHIDROA<br>DMA-60 | H220 | Gutiz sukoa den gasa                                                          |
|                                 | H315 | Larruazalaren narritadura eragiten du                                         |
|                                 | H318 | Lesio larriak begietan                                                        |
|                                 | H332 | Kaltegarria arnastuz gero                                                     |
|                                 | H335 | Narritadura sor dezake arnasbideetan                                          |
|                                 | H314 | Erredurak larruazalean eta lesio larriak begietan                             |
| EPIKLORHIDRINA                  | H412 | Toxikoa izan daiteke organismo urtarrentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin |
|                                 | H226 | Likido eta lurrun gutiz sukoiak                                               |
|                                 | H301 | Toxikoa irentsiz gero                                                         |
|                                 | H311 | Toxikoa larruazala ukituz gero                                                |
|                                 | H314 | Erredurak larruazalean eta lesio larriak begietan                             |
|                                 | H317 | Larruazalean erreakzio alergikoa eragin dezake                                |
| TERBUTILO AKRILATOA             | H331 | Toxikoa arnastuz gero                                                         |
|                                 | H350 | Minbizia sor dezake                                                           |
|                                 | H225 | Likido eta lurrun oso sukoiak                                                 |
|                                 | H302 | Kaltegarria irentsiz gero                                                     |
|                                 | H312 | Kaltegarria larruazala ukituz gero                                            |
|                                 | H315 | Larruazalaren narritadura eragiten du                                         |
|                                 | H317 | Larruazalean erreakzio alergikoa eragin dezake                                |
|                                 | H411 | Toxikoa organismo urtarrentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin              |
|                                 | H335 | Narritadura sor dezake arnasbideetan                                          |

#### Inguruko herritarrei/jarduerari abisatzeko modua.-

Lantegian istripu larriren bat eragin dezakeen ezbarren bat gertatuz gero, inguruko enpresei abisatu eta jakinaraziko zaie sirena akustikoaren bidez, polizia-autoetako megafoniaren bidez, irrati eta komunikabideen bidez, bai eta telefonoz ere inguruko instalazioei, hartu beharreko neurrien berri emateko.

#### Nola jokatu istripu larriak izanez gero

Industrialariak neurri egokiak hartu behar ditu, eta 112 zenbakira deitu, istripuaren ondorioak ahalik eta txikiak izan daitezten.

Istripu larriaren izaeraren arabera neurri hauek hartuko dira: Konfinamendua edo ebakuazioa/urruntzea.

#### Konfinamendurako eta norberaren babeserako jarraibideak

Kalean izanez gero, babes itzazu arnasbideak zapi batekin.

Itxi itzazu atea eta leihoak, jaitsi pertsonak eta ahal izanez gero haietatik urrundu.

Behar izanez gero, jar itzazu zapi hezeak zirrikietan.

Ez erabili aireztatze gailuak.

Ekidin itzazu eraikinetako behealdeak, hala nola sotoak edo garaieak.

Ez erabili telefonoa, behar-beharrezkoa ez bada.

Tokiko irratiei entzun eta gomendio eta jarraibideei jarraitu

#### Urruntzeko eta babesteko jarraibideak

Bidean, babes itzazu arnasbideak zapi edo trapuekin eta bilatu babesleku bat.

Behin helmugan, eraikin edo lokal baten barrualdera sartu eta itxi leihoak eta atak.

Ez erabili telefonoa behar-beharrezkoa ez bada

Tokiko irratiei entzun eta agintariek helarazten dituzten gomendio eta jarraibideei jarraitu.

#### Informazio gehiago lortzeko

Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzua. Agoitz kalea 35 bis. Tel.: 848427171 [proteccioncivil@navarra.es](mailto:proteccioncivil@navarra.es)

<http://www.proteccioncivil.es/riesgos/quimicos/presentacion>